

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ENERGIAREN EUSKAL ENTEAREN ETA MENDEKO SOZietATEEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016**

---

Joan den ekainaren 28an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak Energiaren Euskal Entearen eta mendeko sozietateen ekonomia-finantzako kudeaketaren fiskalizazio txostena onartu du, 2016ko ekitaldiari dagokiona. Honako hauek dira mendeko sozietateak: Energia eta Meatzen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia, SAU; Euskadiko Hidrokarbuero Baltzua, SAU; Harana-Kontrasta Hidroelektrika, SA; Biscay Marine Energy Platform, SA eta Sologoengo Zentral Hidroelektrikoa, SA. Txostenak Osoko bilkurako kide batek egindako boto partikularra du.

2016ko ekitaldiaren **urteko kontuak** direla-eta, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du bai EEE Taldearen 2016ko urteko kontu bateratuei dagokienez, bai EEEren eta mendeko sozietateen urteko kontu banakakoei dagokienez ere.

Gainera, ondorioztatu du bai EEEk bai mendeko sozietateek **zuzentasunez bete dutela** 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen **legezko araudia**, nahiz Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean 2016ko urterako finkatutako birjartze tasa gainditu den.